


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BILL VIOLA:
JAIOTZA, BIZITZA ETA HERIOTZAREN ZIKLO
ETENEZINA**



Sandra Montero Montejo

Artearen Historia

2018-2019

Iñigo Sarriugarte Gómez

Artearen eta Musikaren Historiako Saila

Laburpena

Hurrengo lana Bill Violan eta 90. hamarkadaren lehen erdialdean egin zituen bideo lanetan zentratzen da. Hamarkada honetan Bill Violak jaiotza, bizitza eta heriotzaren zikloa lantzen du, guzti honen iturburua budismo Zen-a izanez.

Lanari hasiera emateko eta Bill Viola hobeto ulertu ahal izateko, lehenik eta behin lan honek irakurlea garaiko testuinguruan kokatzen du, hots, postmodernitatean. 70. hamarkadatik aurrera garatzen den fenomeno da, batez ere Europan eta Estatu Batuetan emanez. Testuinguru postindustrial eta postkapitalista honen barnean, aurrerapen teknologikoek, kolektibo ezberdinen bisibilizazioek, indibidualtasuna eta norbanakoaren sentimenduek berebiziko garrantzia hartzen dute, kutsu teoriko eta filosofiko handiko garaia izanez.

Garai hau teknologia berrien edo *New Media Art*-aren garaia izan zen. Ordenagailua, Internet eta elektronikaren garapenarekin bat artea teknologia berrien barnean sartu zen. Arte adierazpen modu eta lengoia berrien garapenarekin, teknologia berrien baitan bideoa garatu zen. Orduan, bideoa edo kasu honetan bideo artea hirugarren leihoa kontsideratzen zen, zinema esperimentalak eta telebista komertzialetik aldentuta, guztiz eklektikoa, apurtzailea, alternatiboa eta berritzailea bilakatuz.

Testuinguru guzti honen baitan Bill Viola kokatzen da. 70. hamarkadatik aurrera bere ibilbide artistikoa garatzen du eta 1979an Kira Perov-ekin batera Japoniara bizitzera joan zen. Bertan, Daien Tanaka-ren bitartez budismo Zen-arekin kontaktuan jarri eta ordutik, bere bizitzan zehar ezinbestekoa bihurtu den pentsaera eta bizimodua izan da. Azken hau, bere bizimoduaren oinarria izateaz gain, bere bideo lanen oinarria da. Lan honek aztertuko dituen bideo lanak, budismo Zen-ak Bill Violarengan izan duen iraunkortasun edo jarraitutasunaren erakusleak izango dira.

Bill Viola nahiz budistentzat jaiotza, bizitza eta heriotzaren zikloa etenezin eta apurtezina da. Haien ustetan, bizitzen dugun bitartean oraina bizi behar dugu, gertaerak gertatu behar diren eran eta momentuan gertatzen utzi eta bizitzari aske jarraitu. Ondorioz, heriotzari beldur izateak ez du zentzurik, heriotzarekin jaiotza datorrelako eta alderantziz. Budistek eta Violak bizitzaren kontzeptu hau urarekin parekatzen dute, bizitzak uraren moduan aske jariatu behar duelako eta bizitzarekin batera guk.

Aurkibidea

Sarrera orokorra	3
Bideo artearen testuingurua	5
Postmodernitatea	5
Teknologia berriak	6
Bideo artea	8
Artistaren biografia	10
Artistaren ibilbide bideografikoa	12
Artistaren iturriak.....	16
Jaiotza, bizitza eta heriotza Bill Violaren lanetan.....	18
Ondorioak	25
Bibliografia eta webgrafia	27

Sarrera orokorra

Gaiaren aukeraketarekin hasteko, lehenik eta behin esan beharra dago lan hau egitea erabaki nuela ez nuelako pintura, eskultura edo arkitekturari buruzko lan bat egin nahi, adierazpen artistiko ohikoenak direlako. Soinua, argazkilaritza eta bideoa interesatzen zaizkidala kontuan izanda, bideo artearen inguruko lana egitea erabaki nuen. Guzti honi, Guggenheim-ean Bill Violaren lanak aurrez aurre ikustean sortutako inpaktua gehituta, bideo artista honi buruzko lana egitea erabaki nuen.

2017an Bilboko Guggenheim museoak Bill Violari buruzko esposizio bat antolatu zuen *Bill Viola: Retrospectiva* izenekoa. Esposizioak bere ibilbide artistiko osoa erakusten zuen, bere hastapenetatik gaur egunera arte. Esposizioa nahiko harrigarria eta intentsoa iruditu zitzaidan, batez ere Bill Violaren pantaila, espazioaren hautematea, bideoen formatu eta gaien aukeraketa nahiz lanketarengatik.

Erabilitako metodologia dela eta, hasiera batetik tutorearekin eskema edo jarraipen bat adostu nuen lanaren amaierara arte oinarritzat erabili dudana. Lehenik eta behin, irakurlea kokatu nahian lana 3 testuinguru ezberdinez osatzen da, alde batetik postmodernitatearen garaiko testuingurua, bestetik teknologia berriena eta azkenik bideo artearena. Ondoren, lana Bill Violaren biografiarekin jarraitzen du eta ostean, artistaren ibilbide bideografikoa azaltzen da, modu labur batean bere ibilbide artistikoaren lehen pausuak azalduz, gaur egunera arte.

Behin hau irakurrita, irakurlea lanaren zati garrantzitsuenean edo lanaren gorputzean murgiltzen da. Hasteko, artistaren iturriak azaltzen dira, hau da, bideoak egiteko oinarritzkoa den filosofia edo budismo Zen-ari buruzko informazioa. Honetarako, autore ezberdinen ikuspuntuak alderatu eta egiaztatzen dira. Atal hau guztiz erlazionatuta dago ondorengoarekin, hots, bideo lanen aztertzearekin. Bill Violaren bideo lanak ulertzeko budismo Zen-a ulertzea ezinbestekoa baita.

Lan hau gauzatzeko erabilitako iturriak fisikoak nahiz elektronikoak izan dira. Azken hauen artean gehienak museoen web orriak nahiz Youtube dira, bertan bideo artelanak osorik ikusi ahal direlako. Bideoek 8 eta 15 minutu artean irauten dute eta bideoen aurretik hauen argazkiak ikustea alferrikoa da, bideoa osotasunean artelana delako eta honen argazki edo zati izoztu bat ikustea, koadro baten zati bat ikustea bezalakoa da.

Iturri fisikoen artean, gehienbat John G. Hanhardt-ek 2015ean idatzitako Bill Violaren katalogoa erabili dut. Katalogoak Bill Violaren ibilbide osoa batzen du, bere ikasketetatik hasita nola hezi eta hazi den gaur egunera arte, konkretuki 2014. urtera arte. Hanhardt-ek ibilbide guzti hau garatzeko, katalogoa Bill Viola eta Kira Perov-ekin eskuz esku idatzi zuen. Ondorioz, katalogoan Bill Violak berak bere lanen inguruan ematen dituen azalpen esplizituak eta literalak agertzen dira.

Katalogoa sei alditan banatzen da, 60. hamarkadatik gaur egunean amaitzen duena. Lan honen ibilbide bideografikoa egiteko, Hanhardt-ek erabiltzen dituen aipatutako artistaren sei aldien banaketan oinarritu naiz. Katalogo hau Bill Viola eta bere bideo lanen inguruan informazio oso zehatza eta esplizitua batzen duen iturria da, lana burutzeko ezinbestekoa izan dena.

Azkenik, lana egiterako orduan aurkitutako oztopoak edo zailtasunak batez ere lanaren atalik garrantzitsuenean aurkitu ditut. Artistaren iturriak eta budismo Zen-aren barnean sartzerako orduan, esfortzu intelektual bat egin behar izan dut filosofia edo pentsaera budista ulertu ahal izateko. Kultura ezberdin baten ikuspuntutik gai eta kontzeptu nahiko sakon eta transzendentaleen inguruko informazioa jaso dut. Honetarako, Ekialdeko Asiako hainbat autoreen iritzi ezberdinak irakurri ditut filosofia mota hau ulertu ahal izateko, budismo Zen-a ekialdean eta mendebaldean ez delako modu berean ulertzen. Honetaz gain, lana aprobeixatu dut kontzeptu hauen inguruan ikasteko. Jaiotza, bizitza eta heriotzaren inguruan ezagutza sakon askorik ez nuen eta lanaren bitartez, kontzeptu hauekin harremanetan jarri naiz.

Bideo artearen testuingurua

Postmodernitatea

Bideo artea modernitatean edo 60. hamarkadan hasten den arren, postmodernitate garaia barnean garatzen da. Postmodernitatea 70. hamarkadan hasten da eta 1995. urtera arte iraun zuen.¹ Korrante hau nagusiki, Europan eta Estatu Batuetan nabarmendu zen, testuinguru postindustrial eta postkapitalista baten barnean. Postmodernitatea normalean bi korrante nagusietan banatzen da, Hal Foster-en aburuz:

“ [...] existe hoy una oposición básica entre un posmodernismo que se propone deconstruir el modernismo y oponerse al status quo, y un posmodernismo que repudia al primero y elogia al segundo: un posmodernismo de resistencia y otro de reacción. ”²

Garapen teknologiko eta elektronikoa, informazio masiboaren garaia eta mendebaldean ematen ari zen krisia postmodernitatearen testuinguruaren ezaugarri nagusietako batzuk dira. Guzti honekin bat, postmodernitateko sozietateak eta konkretuki artistek profil eta pentsaera ezberdin bat garatzen dute. Hau da, aurreko garaietan bisibilizatu ez ziren artisten profilak postmodernitatean nagusitasuna hartzen dute, haien artean aipatzekoak dira emakumeak, homosexualak eta hirugarren munduko artistak.³

Pentsaeran ere aldaketak ematen dira, norbanakoa eta norbanakoaren borroka eta sentimenduak berebiziko garrantzia hartzen dute. Hori dela eta, postmodernitatean *microrelato* -ak garrantzia hartzen du *metarelato* -aren kontra joanez. *Metarelato* -a edo “El gran relato” kultura globalaren kontakizunak dira. *Microrelato* -a, aldiz, norbanakoen istorio edo kontakizunak izango ziren, hau da, pertsona bakoitzaren mundua edo barne unibertsoa. Bakoitzaren borroka eta gertaerek garrantzia hartzen dute indibidualtasuna nagusiki goraiatuz.⁴ Ezaugarri hau artean eta beste zenbait esparruetan ematen da, Bill Violaren bideo lan askotan ikus daitekeena.

Postmodernitateak, kutsu teoriko eta filosofiko handiko garaia izen zen. Hori dela eta, garai honetan garrantzia izan zuten kritiko, filosofo, teorialari eta idazle batzuk

¹ GUASCH, A.M.: *El Arte Ultimo del Siglo XX. Del Postminimalismo a lo multicultural*. Madrid, Alianza Editorial, 2000, 17 orr.

² FOSTER, H., et al.: *La Posmodernidad*. Barcelona, Editorial Kairós, 1985, 11 orr.

³ Craig OWENS-en azalpenak. FOSTER, H.: “Introducción al postmodernismo”, in FOSTER, H. (ed.): *La Posmodernidad*. Barcelona, Editorial Kairós, 1985, 14 orr.

⁴ LYOTARD, J.F.: *La Condición Posmoderna*. Madrid, Ediciones Cátedra, 2000, 67 orr.

aipatzekoak dira, haien artean, Daniel Bell, Gianni Vattimo, Roland Barthes, Walter Benjamin, Jean Baudrillard eta Paul Virilio, esaterako, beste batzuen artean.

Teknologia berriak

Bideo artearen oinarriak teknologia berrietan edo *New Media Art* -ean daude eta ezinezkoa izango litzateke bideo arteaz jardutea teknologia berri hauek kontuan hartu gabe. Esan beharra dago futurismo italiarrean, dadaismoan edota Bauhaus-en jada teknologia berriak erabiltzen zituztela. Argazkigintzak eta zinemagintzak teknologia berriei bulkada handia eman zieten eta geroago, ordenagailu, Internet eta elektronikaren garapenarekin bat artea teknologia berrien barnean ere garatzen joan zen, forma eta lengoia teknologiko berriak sortuz.⁵ 60. hamarkadatik aurrera, teknologiak berriak garatzen hasten dira eta horrekin bat, teknologia berri hauekin sortutako artea.

Hiru faktore nagusi kontuan hartzekoak dira teknologia berriak aztertzerako orduan. Alde batetik artista, bestetik euskarria eta azkenik, ikuslea. Oraingoan, artista, euskarria eta ikuslearen paperak aldatu egiten dira. Hau da, artistak zientzialariak ere izango dira, artelanek materialtasun berria hartzen dute eta ikusle edo publikoaren interbentzio eta interakzioa ezinbestekoak izango dira. Artistak erlazio edo eragin zuzen bat sortu nahi izango du ikuslearengan, Anna Maria Guasch-ek adierazten duen bezala:

“ [...] *obligan a hablar de una nueva materialidad en la obra de arte; pero también de un nuevo tipo de relación entre los artistas y científicos, y de un nuevo comportamiento del espectador ante el arte [...]*”⁶

Artisten kasuan, esan bezala profil ezberdin bat izango dute aurreko garaiekin alderatuta. Aurrerapen eta garapen teknologiko berriek zientziarekiko hurbilketa bat eskatzen dute, teknologiari eta elektronikari lotutako ezagutzak, zientziaren adarrari lotutakoak. Hori dela eta, ordura arte ikusitako artista “arruntaren” profila zientzialariekin nahastuko da, nolabaiteko elkarlana sortuz. Elkarlana edo hainbat artistaz osatutako taldeak nabarmenduko dira, hau da, sormena eta prozesua ez dira

⁵ MASSARA, G.: “Arte y Nuevas Tecnologías, lo experimental en el bioarte”, *Revista: Centro de estudios y diseño en comunicación*, Cuaderno 45, Universidad de Palermo, 2013, 27-37 orr.

⁶ GUASCH, op. cit., 439-440 orr.

pertsona bakar baten esku geratuko, kooperazioa eta elkarlana garai hauetan ezinbestekoak bihurtuz.⁷

Euskarriari dagokionean, aldaketa garrantzitsuak eman dira, mundua begiratzeko modua aldatu dutenak. Paul Virilio-k azaltzen duen moduan, teknologia berriek mundu berri bat erakusten digute. Azken hau, agerpenaren eta desagertzenaren estetikaren bidez azaltzen du. Bere aburuz, agerpenaren estetika aurreko garaietako euskarrietan eman zen, hau da, euskarrietan (oihala, marmola etab.) irudia agertzen edo azaleratzen joaten zen. Orain, desagertzenaren estetikan aldiz, bideoan esaterako irudia desmaterializatzen da, agertuz eta desagertuz.⁸ Honekin bat, Paul Viriliok munduaren suntsitzeaz edo errealtatearen aldentzeaz ohartarazten gaitu:

“En este momento la pintura y el dibujo están en vías de desaparición, del mismo modo que el escrito corre el riesgo de desaparecer detrás de los multimedia.”⁹

Teknologia berriekin bat, euskarri berriak agertu ziren eta ondorioz, begiratzeko modu eta irakurketa berriak. Ikuslearen kasuan, aurreko garaietako obrek begirada ezberdin bat eskatzen zioten ikusleari, teknologia berriek gauzatutako obrekin alderatuz. Hau da, orain, artelanak ikuspuntu eta kriterio ezberdinekin aztertu edo begiratu behar dira, begiradaren estandarizazioa alde batera utziz. Hau ulertzeko, kontuan hartu behar da agertu ziren informazio iturri, teknologia eta ezagutza forma berriek ere adimen ezberdin baten garapena ekarri zutela, aurreko garaietan garatu ez zen adimena. Hau da, teknologia berriek eta garaiak adimen mota ezberdineko ikuslea eskatzen zuten, teknologia berri horietara moldatutako adimena, ez hobe ez txarragoa, baizik eta adimen ezberdin bat, gaur egunera arte iraun eta garatu dena.¹⁰ Lehen esan bezala, artistak erlazio bat sortu nahi izango du ikuslearekin, artelanak (eta ondorioz artistak artelanaren bidez) ikuslearengan eragina izatea du helburu, horretarako, bai ikusleak eta bai artelanak erlazio bat mantendu behar dute. Ondorioz, ikuslearen interbentzioa edo interakzioa ezinbestekoa izango da.

⁷ DUCHEMENT, J.: *La expansión del discurso audiovisual en la instalación artística: el sonido off como significativa sonora*. Granada, Editorial de la universidad de Granada, 2014, 34 orr.

⁸ PIRELA, A.: “La estética de la desaparición y la ciudad en Paul Virilio”, *Revista: Utopía y praxis*, 15 zbk., Universidad de Zulia, 2001, 114 orr.

⁹ VIRILIO, P.: *El ciber mundo, la política de lo peor*. Madrid, Ediciones Cátedra, 1997, 27 orr.

¹⁰ MASSARA, op. cit., 27-32 orr.

Bideo artea

Teknologia berrien barnean, arte elektronikoa dugu, digitala zein analogikoa. Kategoria honen barnean bideo artea sartuko litzateke baita analogikoa zein digitala izan daitekeena. Bideoa 60. hamarkadan Estatu Batuetan jaio eta komertzializatzen da *Sony Video Portatil* edo *portapack* -en eskutik, autonomia propioa lortuz bideo protekzioa zela eta. Izan ere, bideoa ordura arte telebista kateen esku egondako hedabidea izan zen. Bideoa hirugarren leihoa bezala kontsideratu zen, zinema esperimentalak eta telebista komertzialaren artean zegoelako. Bideoak egiterako orduan bideo arteak ez ditu ez telebista ez zinemaren parametroak kontuan hartzen. Hori dela eta, bideo artea beste kategoria batean sartzen da, gai guztiz eklektikoak jorratuz.¹¹ Hala ere, bideo arteak konbentzioak guztiz apurtu zituen, bere agerpena telebista komertzialari oposaketa handia eginez.

Bideo artea guztiz apurtzailea, alternatiboa, berritzailea eta *underground* -a izan zen. Ordura arteko bideoaren konbentzioekin apurtzen du, lehen esan bezala telebista nahiz zinemaren ezaugarriak alde batera utziz. Baliabide merkea eta erreza izateaz gain, korrante alternatiboa jarraitzen zuen, jendearen eskuetan zegoena. Horrek zer esan nahi du? Ez zuela jende ezta komunikabide masen alde egiten. Ikus daitekeen moduan, bideo arteak berezko ezaugarri eta lengoaiak zituen, ordu arte ikusi ez zirenak.¹²

Ondoren, Anna María Guasch-ek *El arte ultimo del Siglo XX. Del postminimalismo a lo multicultural* liburuan erabilitako metodologian edo aldien banaketa eskematikoan oinarrituta, bideo artea 3 aldi nagusietan banatuko dut. Lehenik, 60. hamarkadan aitzindariak izango ditugu, bigarrenik 70. hamarkadako bideo artistak eta 80. hamarkadarekin amaiera emango zaio.¹³

Wolf Vostell eta Nam June Paik bideo artearen aitzindari nagusiak kontsideratzen dira, ezinbestekoak izanez. Hauek, 60. hamarkadan *fluxus* mugimenduan hasi ziren eta figura guztiz berritzaileak bihurtu ziren. Biak bideo eskultura egiten hasi ziren, hau da, monitorez osatutako eskulturak. Monitore hauen pantailak beti piztuta egon behar dira, pantaila edo bideoa itzaliz edo kenduz gero, artelana soilik eskultura

¹¹ SARRIUGARTE, I.: “Conexiones entre el videoclip y el videoarte”, in PEINÓ, J. et al. (ed.): *Otoimatge-MusicVideoArte*, Valencia, Editorial de la Universidad Politécnica de Valencia, 2008, 33 orr.

¹² MARTÍNEZ, J.: *Videoarte expandido, espacio de confluencia entre la cinematografía y la escultura*. Barcelona, Universitat de Barcelona, 2014, 51-52 orr.

¹³ GUASCH, op. cit., 442 orr.

bat izango litzateke, bideoari uko eginez eta ondorioz, bideo eskulturaren terminoari. Lan hauen bitartez, biek, artearen diskurtso elitista kritikatu zuten, konbentzionaltasunetatik aldenduz.¹⁴

Nam June Paik Bill Violaren maisua izan zen eta denbora luzez hezitu eta hari hainbat proiektuetan lagundu zion. Bere lehenetariko bideo eskulturarik garrantzitsuenetako bat *Concert for TV Cello* izan zen, 1971. urtekoa, Moorman-en kolaborazioarekin. Lan honen aurrekaria 1965eko *For a String Player* izan zen, non Charlotte Moorman-ek John Cage-ren pieza bat interpretatu zuen Nam June Paik-en bizkarra biolontxelo modura erabiliz. Ondoren, Nam June Paik-ek *Concert for TV Cello* lanean berdina egin zuen baina oraingoan, biolontxeloaren papera hiru monitorek hartuko zuten, hirurak biolontxeloaren hariekin elkartuta. Monitore horietan, Moorman-en irudiak eta telesaio bateko irudiak alternantzia agertuko ziren. Bitartean, Moorman-ek biolontxelo joko balu bezala agertzen da.¹⁵

Nam June Paik-ek azken aldiak garatzen hasi zena, 70. hamarkadan azpimarratu zen. Aldi honetan, bideo instalazioak, bideo eskulturak eta bideo performance-ak egiten dira, 60. hamarkadan ez bezala. Honen bitartez, bideo artea bere lengoia propioaren garapenaren punturik gorenera iritsiko da.¹⁶ Hasieran aipatutako artista, euskarri eta publikoaren arteko erlazio trianguluarra 70. hamarkadan aditzera eramango da. Hamarkada honetan esangura eta garrantzia izan zuten artistetako batzuk Peter Campus edo Dan Graham izan ziren, besteak beste.

Bill Violak Peter Campusen laguntzaile moduan lan egin zuen, bere lanek Violarengan influentzia izanik. Peter Campusen obra esanguratsuenetako bat eta bideo artean eragin handia izan zuena *Three Transitions* da, 1973. urtekoa. Lan honetan, Campus agertzen da eta trukaketak, croma eta beste zenbait errekurtsoren bitartez bere gorputza aldatzen doa, hiru trantsizio nabarmenduz. Ikus dezakegun moduan, asko jolasten du euskarriarekin, gorputzarekin eta gorputzak dituen aldaketekin.¹⁷

60 eta 70. hamarkadaren artean, Bill Viola kokatuko litzateke. Bill Violak beste modu batera ulertzen du bideo artea, ikuspuntu introspektiboago bat hartzen baitu bere

¹⁴ Ibid., 442 orr.

¹⁵ BAIGORRI, L.: *Video digital de creació*. Barcelona, Universitat Oberta de Catalunya, 2005, 7-8 orr.

¹⁶ SARRIUGARTE, op. cit., 6 orr.

¹⁷ MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA: <https://www.museoreinasofia.es/coleccion/obra/three-transitions-tres-transiciones> (2019.11.02an kontsultatua).

lanetan.¹⁸ Hala ere, Bill Viola geroago sakonki aztertuko dudan artista izango da, hori dela eta, atal honetan bere ibilbidea eta artelanen inguruan ez dut behar beste sakonduko.

Amaitzeko, 80. hamarkadako bideo arteari dagokionean, aldiz, teknologia berri eta aurreratuagoak agertu ziren, hori dela eta, panorama aldaketa bat eman zen. 70. hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadan errekurtsio guzti hauen erabilera batez ere bideo feministetan nabarmendu zen. Hauen bitartez, sexua, politika edota identitate eztabaidak azaleratzen zituzten.¹⁹ Garai honetan, Marcel Odenbach, Dara Brinmaun edota Martha Rosler nabarmentzen dira. Hala ere, hauez gain, Bill Viola edota Gary Hill bezalako bideo artistak 80ko hamarkadan ere nabarmenak ziren, bideoa beste bide batzuetatik eramanez, errealitate berriak miatu nahian.

Artistaren biografia

Bill Viola 1951. urtean jaioako bideo artista estatubatuarra da, New York hirikoa hain zuzen ere. Viola bideo artearen aitzindarietako bat izan zen, gerora eta gaur egunera arte bideoaren erreferente garrantzitsuenetako bat izatera helduz. Sirakusa-ko unibertsitatean ikasketa esperimentalak ikasi zituen eta bertan, Jack Nelson eta Franklin Morris ezagutu zituen eta elkarrekin ikasketak gauzatu zituzten, ikus-entzunezko arteak zehazki, 1973. urtera arte. 1970ean Italiara bidaiatu zuen eta denboraldi batez bertan bizitzen geratu zen. Behin Europan zuzendari tekniko bezala lan egin ondoren (Europako lehenetariko bideo estudio batean) bere lehenetariko bideoak gauzatzen hasiko da.²⁰

Bill Violari bideo arteaz gain, musika betidanik asko interesatu zitzaion, izan ere, 1973an eta 7 urtez David Tudor-ekin lan egin zuen eta geroago musika elektronikoaren esparruaren baitan sartu zen. Horrez gain, bideo musikalak eta musikari gehigarri bezala bideoak egin zituen, baita operen erreprodukzioak ere. 1977an Kira Perov-ek, La Trobe unibertsitateko arte eta kultura zuzendariak, Violari erakusketa bat eskaini zion unibertsitatean bertan, bere lanek interes handia piztu zutelako Perovengan.

¹⁸ GUASCH, op. cit., 448-449 orr.

¹⁹ Ibid., 453 orr.

²⁰ BILL VIOLAREN web orria: <https://www.billviola.com/biograph.htm> (2019.11.02an kontsultatua).

Hori dela eta, elkar ezagutu eta gaur egunera arte elkarrekin lan egiten dute, senar-emazteak izanez.²¹

Kira Perov Melbourne-ko unibertsitatean hizkuntzak eta literatura ikasi zituen eta esan bezala, La Trobe unibertsitate australiarrean arte eta kultura zuzendaria izan zen. Gaur egun, Violaren lankidea eta “Bill Viola estudioen” zuzendaria da. Perov komisarioa, orientatzailea, begiralea, zuzendaria, laguntzailea, editorea, argazkilaria eta idazlea da, beste gauza askoren artean. Violaren katalogo asko idatzi izan ditu eta esposizio askoren koordinatzailea izan da. Ezagutu zirenetik elkarlanean dabilta, sormen kapazitate eta adimen handiko pertsona izanez.²²

1979an Viola eta Perov Japoniara bizitzera joan ziren Violari eskainitako ikasketa beka baten bidez. Japonian, Sony enpresaren ikerkuntza laborategian egon zen, bideoaren inguruan ikasketa eta ikerkuntzak gauzatzen. Bertan, budismo zen-arekin kontaktuan jarri zen Daien Tanakaren bitartez, bere bizitzan zehar eta bere lanetan ezinbesteko papera edo lekua hartuko duen pentsaera eta bizimodua izanez. Aurrerago ikusi ahal izango dugu nola balore hauek bere lanetan oso presente egongo diren.²³

Japoniatik bueltan, 1981ean Long Beach-en (Kalifornian) ezartzen dira argazki nahiz bideo proiektu batzuk egiteko nahian, gaur egun oraindik bertan eginiko estudioan jarraitzen dute. Ikus daitekenez, Violak bere bizitzan zehar bideoak egiteaz gain, pelikulak, opera, musika, argazkia, bideo instalazio eta esperimendazio ezberdinak egin ditu, teknologia berrien inguruan esperientzia eta ezagutza anitza izanez.²⁴

Bill Violak jaiotza, bizitza edo heriotza bezalako gaiak aztertzen ditu. Gai hauei buruz, zehazki, testu batzuk idatzi zituen 1976. urtean, *Perfección, tecnología, imaginación y paisaje* deitzen direnak. Violak bideoa begi baten antzera ulertzen du, begi mistiko baten antzera. Begi horren bitartez, ezezaguna dena, heriotza, antsietatea, ametsak eta beste zenbait elementu metaforikoen bidez bere bideoetan sinbolizatu edo islatzen ditu. Bere aburuz:

²¹ Ibid.

²² BILL VIOLAREN web orria: <https://www.billviola.com/> (2019.11.03an kontsultatua).

²³ ARTIUM: <http://catalogo.artium.org/book/export/html/333> (2019.11.02an kontsultatua).

²⁴ BILL VIOLA, (2019.11.03an kontsultatua), op. cit.

“ *Todo arte se basa en el simbolismo y la metáfora, y si es una simple representación de nuestro mundo real, entonces es solo eso.* ”²⁵

Hauetaz gain, bere lanak giza esperientzietan ere zentratzen dira. Erabateko edo guztizko artista da, bere lanek filosofia, literatura, pintura, erlijioa, teosofia, nudismoa, artearen historia, autobiografia etab. biltzen dituztelako osotasunean. Gainera, gai guzti hauen barruan esparru ezberdinak lantzen ditu. Filosofiaren kasuan, esaterako, filosofia Zen-a. Mistizismoaren kasuan, kristaua nahiz sufismo islamiarra.²⁶

Bere bizitzan zehar eta gaur egun ere esposizio ugari egin dituen artista da, munduko arte zentro eta museo garrantzitsuenetarikoetan. Honekin bat, 1995ean Veneziako 46. bienalean egon zen.²⁷

Artistaren ibilbide bideografikoa

Lehen atalean aipatu bezala, Bill Viola 60 eta 70. hamarkaden artean bideoan hezitzen den artista da, bi hamarkada hauetako ezaugarri nahiz eraginak bereganatu eta oinarritzat hartu zituen bere bideoak gauzatzeko.²⁸ Ibilbide bideografiko hau garatzeko, John G. Hanhardt-ek idatzitako Bill Violaren katalogoko artistaren aldien banaketa oinarritzat hartu dut, banaketa berdina erabiliz. Lehenengo atala artistaren hasiera edo hastapenak izango lirateke eta bostgarrena edo azkena aldiz, 2000. urteak, gaur egunera arte.²⁹

Aipatu bezala, Bill Violari Nam June Paik eta Peter Campus-ekin lan egiteak esperientzia eta jakinduria bereganatzea ekarri zion. Bere hastapenetako lan batzuk *Zinta I (Tape I, 1972)*, *Zikloak (Cycles, 1973)* edota *Maila (Level, 1973)* izan ziren.³⁰

Bill Violak 70. hamarkada *Informazioa (Information, 1973)* lanarekin hasi zuen. Lan hau, istripu elektronikoen ondorioz sortu zen, kolore eta forma desitxuratu nahiz zorizkoak monitorean agertuz, soinu karrankariekin batera. Laburbilduz,

²⁵ REVUELTA, L.: “Entrevista a Bill Viola”. *ABC Cultural*. https://www.abc.es/cultura/cultural/abci-bill-viola-hombres-no-pueden-controlar-naturaleza-201707020023_noticia.html (2019.11.02an kontsultatua).

²⁶ BILL VIOLA, (2019.11.03an kontsultatua), op. cit.

²⁷ Ibid.

²⁸ GUASCH, op. cit., 448 orr.

²⁹ HANHARDT, J.G.: *Bill Viola: Retrospectiva*. Bilbao, Guggenheim Bilbao eta La Fábrica, 2017, 22 orr.

³⁰ PULIDO, N.: “Bill Viola: de lo espiritual en el arte”, *ABC Cultural*, 2017: https://www.abc.es/cultura/arte/abci-bill-viola-espiritual-arte-201706300125_noticia.html (2019.4.4an kontsultatua).

monitorean agertzen zena elektronikaren agerpen literala edo materiala zen. Istripuak eta esperimentazioak kontuan hartzen dituen artista da, bere begirada istripu soiletik haratago joanez, arte bihurtu arte.³¹

Hemendik aurrera, kanal laburreko zintak eta zirkuitu itxiko bideoetan interesa erakusten hasi zen, inguratzen gaituen errealitate nahiz espazioarekin jolastuz. Guzti honen eredugarri *Zugatik ari da negarrez (He Weeps for You, 1976)* dugu. Instalazio honetan monitore batean iturri bat proiektatuta agertzen da, iturri horretatik ur-tantak pixkanaka isurtzen dira, ikuslearen irudia tantan islatuz. Instalazioan, monitoreaz gain iturri fisiko bat dago eta monitorean iturriaren ur-tanten izurketa eta erortzea ikus dezakegu. Hau da, monitorean ikusten duguna errealitatean momentu eta leku berean gertatzen ari da, bi errealitate horiek gure begien aurrean momentu berean antzemanez.³² Esan bezala eta ikus daitekeen moduan, errealitatea edo espazioaren begiratze eta antzematearekin jolasten du.

Honetaz gain, 70. hamarkadan irudi estatiko eta mugikorren arteko nahasketekin jolastu zuen, lan ezagunenetarikoak *Lau abesti (Four songs, 1976)* edota *Urmael islatzailea (The Reflecting Pool, 1977-79)* bildumak dira.³³ Gai existenzialistak, munduarekiko gogoetara bultzatzen dutenak eta teologiadunak jorratzen ditu, artistaren ikusmira errealitate arruntetik haratago joanez.³⁴

80ko hamarkadaren hasieran Bill Violak munduarekiko gogoeta sakonak egiten jarraitu zuen, existenzialismo kutsu handiago batekin. Hamarkada honetan beka baten bidez Japonian lan egiteko aukera izan zuen, ondorioz, Japoniara Perov-ekin bizitzera joan zen. Japonian egoteak artista pertsonalki asko aldatu zuen, bidaia hau Bill Violaren bizitzaren alderdi guztietan inflexio-puntu bat suposatu baitzuen. Garai honetako lehen lana *Lehen ametsa (Hatsu-Yume, 1981)* izan zen, zinta paregabea izanez. Lan honetan bideo artistak egun oso bat Japonian grabatzen du, kontrastez betetako irudiak erakutsiz.³⁵

³¹ LONDON, B., HOBERMAN, J., KUSPIT, D.: *Bill Viola*. New York, The Museum of Modern Art, 1988, 24-25 orr.

³² ELECTRONIC ARTS INTERMIX: <https://www.eai.org/webpages/30> (2019.4.4an kontsultatua).

³³ GUGGENHEIM-BILBAO MUSEOA, op. cit.

³⁴ HANHARDT, op. cit., 36-37 orr.

³⁵ VARA, C.: << A cada momento un mundo nace y muere >>: *elementos de la temporalidad en las video instalaciones de Bill Viola, con una coda de neurociencias*. Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, 2016, 69-70 orr.

Esan bezala, Japonian egon ondoren *Sony*-rentzat lan egiten hasi zen. Ordurako, Japonian Zen maisuarekin ikasitako filosofia guztia oso barneratua zuen eta artistarengan pentsamendu aldaketa bat eman zen. Hamarkada honen amaierako lanetan filosofia eta pentsamendu aldaketa horren lortzeko ikus daitezke, sententziala izatekiko espiritual eta moralagoa izatera igaroz. *Pasabidea (Passage, 1987)* edo *Arrazoiaren loa (The Sleep of Reason, 1988)* bezalako lanetan, esaterako, antsietatea edo ametsak bezalako gaiak jorratzen ditu, hau da, gai barnerakoi eta sakonagoak. Bide honetatik jarraituz, behin espiritualtasunean zentratuta, gorputza esploratzera pasatuko da, bideo formatu ezberdinekin batera.³⁶

Bill Violarentzat 90. hamarkadaren lehen erdia garai oso oparoa izan zen. Artistak, espiritualtasunean, existentzian, bizitzan eta bizitzaren esperientzietan zentratu zituen bere bideoak. Bizitzaren bidaia, jaiotza, heriotza edo ametsak bezalako gaiak jorratuz beste askoren artean.³⁷ Lanean zehar, geroago, artistaren pentsamolde hau sakonki azalduko dudana atala izango da, artistak bizitzaren bidaia, jaiotza eta heriotzari buruz duen pentsaera, filosofia eta mistizismo honen historian zentratuz, besteak beste. Ondorioz, oraingoan ez dut behar beste sakonduko. Garai honi hasiera eman zion lanetako bat *Igarotzea (The Passing, 1991)* izan zen. Honako honek *Nanteseko triptikoa*-rekin (*Nantes Triptych, 1992*) batera, jaiotza, bizitza eta heriotza bezalako gaiak islatzen dituzte.³⁸

Inkontzientea, hutsunea, denbora eta gorputza bezalako gaiak lantzen dituen bideo lanak ere baditu *Pneuma (Pneuma, 1994)* kasu. Aipatzekoa da, hamarkada honetan Bill Violak plasma edo pantailen formatuekin asko jokatzen duela. Tamaina eta material ezberdinetako pantailak erabiltzen ditu, baita monitore edota telebista ezberdinak ere. *Beloak (The Veiling, 1995)* lanaren kasuan, oihal zeharrargi eskegiak erabiltzen ditu, hori dela eta, irudiak proiektatzerako orduan ez dira oihal soil batean proiektatzen, oihal guztietan baizik, zeharrargiak direlako. Honek efektu nahiko bizia sortzen du, nahasketa eta sakontasuna bezalako efektu bitxi eta ezberdina.³⁹

³⁶ FOUNDATION CARTIER POUR L'ART CONTEMPORAIN: <https://www.fondationcartier.com/en/exhibitions/bill-viola> (2018.4.4an kontsultatua).

³⁷ HANHARDT, op. cit., 57 orr.

³⁸ ARTIUM: <http://catalogo.artium.org/dossieres/1/bill-viola/obra/sus-obras/passing> (2019.4.4an kontsultatua).

³⁹ VARA, op. cit., 139-141 orr.

90. hamarraldiko bigarren erdialdean, Bill Viola gorputzaren bidezko emozioen azaleratzea edo erditzean zentratzen da. Berpizkunde eta Erdi Aroko gorputz nahiz aurpegiaren espresioetan inspiratuta, *Agurra (The Greeting, 1995)* bezalako artelanak egin zituen. Bideo artelanean hiru emakume agertzen dira, kaletik topatu eta agurtu direlarik. Agurtzean, aurpegi eta gorputzen espresio eta gestuen bitartez haien poztasuna nabari daiteke, elkar ikusteak eragin dien poztasuna, hain zuzen ere. Bideoa kamera motelean apropos grabatuta dago ikusleek xehetasunetan, aurpegiaren keinuetan eta beste zenbait aspektuetan arreta jartzeko.⁴⁰

Mezularia (The Messenger, 1996) edo *Bidegurutzera (The Crossing, 1996)* garaiko beste lanetako batzuk dira. Azken hau oso lan interesgarria da jaiotza eta heriotza edo purifikazioa eta suntsitzea bezalako gaiak oso modu originalean lantzen dituelako. Artelan honetan Bill Violak emozioei uko egiten die, gorputzari garrantzi guztia emanez.⁴¹ Ikus dezakegu nolabait, aurreko garaian sakonki markatu zion filosofia eta pentsaera transzendental eta mistiko hori berarengan oraindik dirauela.

Amaitzeko, azken atala 2000. urteak izango lirateke, gaur egunera arte iraungo duena. Oraingoan, bizitza espiritualari jarraituta irudi mugikorak, emozioen helaraztea, gorputzaren garrantzia, giza izaera, jaiotza, heriotza, inkontzientea edota gu nor garen bezalako gaiak lantzen ditu, aurreko garaietako obren gai guztiak era oso fin batean bilduz. Aurreko garaian jorrotutako gorputzaren bidezko emozioen helaraztea *Grinak (The Passions, 2000-2002)* edota *Egunerantz aurrera eginez (Going Forth By Day, 2002)* sailetan ikus daitezke.⁴²

Igokundea, errenkarnazioa eta heriotza nahiz osteko bizitza bezalako gaiak 2005ean jorrotatu zituen. *Tristanen igoaldia (Mendiaren hotsa ur-jauzi baten azpian) [Tristan's Ascension (The Sound of a Mountain Under a Waterfall, 2005)]* lanean ikus daiteke nola hildako baten gorputza edo arima zerura igotzen hasten den ur-jauzi alderantzikatu baten bidez, hau da, ura gorputzarekin bat zerura igotzen da, jauzi beharrean. Lotura, antzekotasun edo ildo berdina jarraitzen duten beste lan batzuk ere

⁴⁰ AA.BB., *El museo del Prado y el arte contemporáneo: la influencia de los grandes maestros del pasado en el arte de vanguardia*. Galaxia Gutenberg, 2007, 317-321 orr.

⁴¹ HERNÁNDEZ, J.: "El universo poético de Bill Viola". *ARS magazine*, 2017ko ekainean: <http://artelectronicmedia.com/artwork/the-crossing> (2019.4.5ean kontsultatua).

⁴² CASTRO, F.: "Las pasiones de Bill Viola", *Descubrir el arte*, 72 zbk, 2005, 66 orr.

badaude, *Su emakumea (Fire Woman, 2005)* eta *Errugabeak (The Innocents, 2007)* kasu.⁴³

Bill Violaren azken lanak *Jaiotza alderantzikatua (Inverted Birth, 2014)* eta *Martiriak (lurra, airea, sua, ura) [Martyrs (Earth, Air, Fire, Water, 2014)]* dira. Azken hau, Britania handiko San Pablo katedralean kokatuta dago. 4 pantailaz osatutako bideo lana da eta pantaila bakoitzean pertsona bat agertzen da elementu lurtar batekin, hau da, lurra, airea, sua eta ura. Elementuetako batzuk zerutik jausten dira, beste batzuk aldiz, zerura igo edo lurretik hazten dira, goranzko norabidea jarraituz. Lan honen bitartez, bideo artistak bizitzaren sakrifizioa eta heriotza nahiz jainkoarenganako ibilbidea edo prozesua errepresentatzen ditu.⁴⁴

Ikus daitekeen moduan, 1990. hamarkadako lehen erdialdean jorratutako pentsamolde mistiko eta espiritualak ez ditu inoiz atzera uzten. Jaiotza eta heriotza bezalako gaiak, esaterako, 90. hamarkadatik aurrera lantzen jarraitzen ditu, nahiz eta ondorengo garaietan gai guztiz ezberdinak jorratzen hasiko den. Lehen esan bezala, pentsamolde honek bere izaera markatu zuen. Honen ondorioz hurrengo atalean, aipatutako etapa horretan zentratuko naiz espiritualtasun, mistizismo eta existentzialismoan sakonduz, guzti honen iturburua filosofia Zen-a izanez.

Artistaren iturriak

Budismo Zen-a Ekialdeko Asian garatutako pentsamoldea da eta bere sustraiak Txina, Korea, Vietnam eta Japonian egon arren, mendebaldera eta mundu osora zabaldu da. Honen jaiotza k.a.VI. mende inguruan datatzen da baina gaur egunera arte iraun eta hedatu den pentsamolde edo adierazpen bidea da. Budismo Zen-ak meditazioa du oinarritzat, Zen hitzak japonieraz meditazioa esan nahi duelako.⁴⁵

Indian, meditazio sakon baten ondorioz Buda Sâkyamuni argiztapenaren esperientzia bizi zuen. Argiztapen hori esnatze bezalako bat da, egia absolutuaren ezagutza. Aipatutako argiztatze hau isiltasuna edo hitzaren ezaren bidez transmititu zen, hau da, meditazioaren bidez. Hori dela eta, pentsamolde horren irakaskuntza edo

⁴³ HERNÁNDEZ, op. cit.

⁴⁴ ST. PAUL'S CATHEDRAL: <http://billviolaatstpauls.com/martyrs> (2019.4.4an kontsultatua).

⁴⁵ VILLALVA, F.: *Budismo Zen: Repercusiones estéticas en oriente y occidente*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid, 2013, 1 orr.

oinarria meditazioan datza. Nahiz eta Budismoa Indian jaio, geroago Txinara hedatu zen eta Txinara heltzearekin bat Asiako beste lekuetara zabaldu zen, Japoniara esaterako.⁴⁶

Meditazioaren budismoa VIII. mendean Japoniara heldu zen, Zen izena bereganatuz. Nahiz eta garai horietan budismoa dekadentzian egon, Japonian XIII. mendean gauzatutako aurrerakadarekin Zen-ak gorakada eta arrakasta izugarria izan zuen. Horretaz gain, XIX. mendean Japoniak komertzio harremanen bidez Zen-a mendebaldera hedatu zuen, besteak beste. Izan ere, Japonian Zen eskola asko sortu ziren, bertako irakasle eta biztanleek konpromezu eta tolerantzia handia baitzuten pentsamoldea mendebaldera partekatzearekin.⁴⁷

Zen-aren ezarketa ofiziala mendebaldean bigarren mundu gerraren ondoren eman zen, Daisetsu Teitaro Suzuki-ren eskutik. Azken honek, hainbat hizkuntzetan Zen-aren pentsaera bateratu eta publiko bat eskaini zuen. Budismo Zen-a ulertu ahal izateko, bere publikazioetan azalpenak mendebaldeko pentsamoldera moldatzen dira, mendebaldeko sozietateak ekialdeko pentsaeraren ulermena errazteko. Era honetara, bere ideiak mendebalde osora hedatu ziren, gaur egunera arte. Hala ere, Daisetsu-z gain beste pentsalari Zen askoren ideiek ere berebiziko garrantzia izan zuten eta badute, haien artean Senzaki Nyogen, Shunryu Suzuki, Sanbô Kyôdan edo Deshimaru Taisen ditugu. Mendebaldeko Zen maisu bat aipatzearen Willigis Jäger dugu, beste batzuen artean.⁴⁸

Zen bizimodua esan bezala, berbaren eza edo mesfidantzan datza. Bizimodu honen inguruan idatzi asko daude baina benetako jakintza meditazioaren bidez lortzen da. Pentsamendu honek logika arrazionala alde batera uzten du, eta lengoia arrazoian oinarritzen dela kontuan hartuta, ulertzekoa da honen erabileraren eza. Esan beharra dago, ezagutza hau maisu baten bidez transmititzen dela, maisua eta ikaslearen arteko harremana berebiziko garrantzi izanez.⁴⁹

Irakaskuntza eta meditazioa dela medio, hutsunearen egoerara heltzeko bidea transmititu edo irakatsi nahi da, hutsunea kontzeptu garrantzitsuena izanez. Hutsunea ezereza, agortasuna edo hutsik egotea izango litzateke, inolako pentsamendurik gabe burua edo adimena hutsaren pean utziz, lo egotearen pare. Honen bidez, gure burua

⁴⁶ YASSINE, E.: *Breve historia del budismo*. Madrid, Ediciones Nowtilus, 2014, 23-25 orr.

⁴⁷ Ibid., 236-237 orr.

⁴⁸ VILLALVA, op. cit., 30 orr.

⁴⁹ MÚGICA, B.: *La presencia del arte japonés en Occidente: El arte Zen en la obra de Prado de Fata*. CYXAC Masterraren Azken Lana, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2018, 41-42 orr.

arrazoiaren eta logikaren eskuetatik libre geratuko litzateke inkontziente, aske eta naturala bilakatuz. Jaio eta hiltzerakoan inkontziente gara, gure buruaren egoera naturala inkontzientea izanez. Logika eta arrazoitik aldenduta gure buruak aske jariatuko luke, uraren pare. Prozesu guzti honekin, bizitzaren esentzia eta benetako egia ikusi edo deskubrituko genuke, hau da, argiztapena eta salbazioa.⁵⁰

Argiztapena esnatzea izango litzateke, meditazio sakon eta luze askoren ostean lortzen den egoera. Argiztatzea, objektu eta intentziorik gabeko bizitza izango zen, hau da, askatasuna. Oraina eta momentua bizitzean datza, gertaerak gertatu behar diren bezala gertatzen utziz eta bizitzari jarraituz. Gorputzak inkontzienteari jarraitu beharko lioke adimena eta bizitza era aske batean jariatuz. Beraz, lo egotearen pareko egoeratik abiatuta, esnatzea edo argiztapena lortuko litzateke. Argiztatzearen egoerara heltzea *Nirvana*-ra heltzearen egoerarekin parekatu daiteke, hau da, askatasuna bere osotasunean.⁵¹

Ikus daitekeen moduan, argiztapena edo salbazioa norbanakoak berak lortu behar du prozesu pertsonal baten bidez, inolako jainkorik gabe, salbazioa norbanakoa bera izanez. Nahiz eta eskola, pentsamendu eta pentsalari ezberdinak egon, maisu edo Zen praktikatzaile guztiei argiztapenaren helburuak elkartzen die eta behin argiztapena lortuta, bi bizitza ezberdin nabarmentzen dituzte, argiztatzearen aurrekoa eta ondorengoa.⁵²

Daisetzuren aburuz, subkontzienteak edo inkontzientziak berebiziko indarra du, hau da, meditazioaren bidez lortzen den egoerak. Hori dela eta, salbaziora iristeko bide bakarra meditazioan datza, bizitzen dugun mundu nekatu, teknologiko eta kaotikoak armoniatik aldendu gaituelako eta armonia hori errekuperatu behar dugulako. Ondorioz, armonia edo salbazioa lortzeko meditazioaren praktika ezinbestekoa da.⁵³

Jaiotza, bizitza eta heriotza Bill Violaren lanetan

Aurretik aipatu bezala, 90. hamarkadaren lehen erdialdean Bill Violak gai existentzialistak eta espiritualak jorratu zituen, hala nola jaiotza, bizitza eta heriotza

⁵⁰ SHIZUTERU, U.: *Zen y Filosofía*. Barcelona, Herder, 2005, 25-28 orr.

⁵¹ VILLALVA, op. cit., 43 orr.

⁵² Ibid., 119-120 orr.

⁵³ SUZUKI, D.T.: *Introducción al Budismo Zen*. Buenos Aires, Editorial Kier, 2006, 16-18 orr.

bezalako gaiak batez ere. Esan bezala, budismo Zen-a Japonian ikasi eta gaur egunera arte oso finkatuta geratu zaion pentsamendu edo bizimodua da. Hori dela eta, nahiz eta 90. hamarkadako lehen erdialdeko lanek aipatutako gai hauek azpimarratu, beste etapa batzuetako gaietan ere Zen-aren kutsua nabari daiteke. Guzti hau kontuan hartuta, hurrengo atalean jaiotza, bizitza eta heriotzaren zikloaren adierazle diren lanetan sakondu dut.

Hamarraldi honen lehen obretako bat *Igarotzea* (*The Passing*, 1991) izan zen. 54 minutu irauten duen bideo artelan bat da, txuri-beltzean egindakoa. Lan honetan plano ezberdinak erabiltzen ditu, nahasiz. Ehundura eta kolore ezberdinak filmatu (nahiz eta txuri-beltzean izan gris eskala ezberdinak nahasten ditu) eta naturako elementu ezberdinak errepresentatzen ditu, ura gehienbat. Bideo lan honetan irudi ezberdinak ikusten dira. Askotan, irudien artean inolako konexiorik ez dagoela pentsa daiteke sekuentzia batzuk oso zorizkoak direlako, baina beste batzuetan, aldiz, erlazioa edo konexioa nabaria da.⁵⁴



1.irudia. *Igarotzea* (*The Passing*, 1991).

Igarotzea (1. irudia) bizitzaren zikloaren adierazleetako bat da, hau da, jaiotza, bizitza eta heriotzaren arteko konexioaren adierazle. Sekuentzia adierazgarri bat dago non ume jaioberri bat maindire batean biltzen ikusten den. Honen ostean, maindirea eta pertsona bat uretan murgilduta ikusten dira. Honen ondoren eta nolabaiteko sekuentzia elkarketa baten bidez, pertsona nagusi bat hilik ikusten da, maindire berdinarekin bere gorpua estaliz, hilda dagoelaren adierazle. Maindirearen bitartez jaiotza, bizitza eta heriotzaren hiru aurpegiak erakutsi, elkartu eta guztiz erlazionatzen ditu.⁵⁵

Deshimaru Taisen maisu Zen-aren esanetan, hiru fase hauek heriotzarekin amaitu edo osatzen dira, heriotzak berebiziko garrantzia hartuz. Deshimaru heriotza *Nirvana*-rekin parekatzen du, hau da, askatasuna bere osotasunean. Azken ziklo honek, bizitzaren zikloa osatu eta bukatuko luke. Honen ondorioz, bere aburuz, ezin dugu fase

⁵⁴ THE MUSEUM OF MODERN ART - MOMA: <https://www.moma.org/collection/works/118326> (2019.4.29an kontsultatua).


⁵⁵ ARTIUM: <http://catalogo.artium.org/dossieres/1/bill-viola/obra/sus-obras/passing> (2019.4.29an kontsultatua).

hori atzeratu edo oztopatu, bizitzarekin jariatu eta eramaten utzi behar dugu, gauzak gertatu behar diren eran eta momentuan gertatzen utziz, ezer egin gabe.⁵⁶

Bestalde, pertsona uretan murgiltzearen sekuentziak garrantzi handia du. Azken hau, jaio ondorengo bizitza edo bizitzen dugun bizitzaren adierazle izango litzateke. Lehen aipatu bezala, budisten esanetan bizitzen dugun bitartean gure adimena logika eta arrazoitik kanpo utzi behar dugu, bizitza aske bat biziz eta askatasunez jariatuz, uraren pare.⁵⁷ Bill Violak uraren erreferentzia hori bideo lan askotan erabiltzen du, ura inkontzientzia, askatasuna eta hutsarekin erlazionatuz, Budismo Zen-ak parekatzen duen bezala. Erreferentzia hau, geroago beste artelan askotan ikusi ahal izango dugu. Laburbilduz, uretan murgilduta egoteak inkontzientean, hutsunean eta ondorioz askatasunean murgilduta egotea adieraziko luke. Azken sekuentzia heriotza izango lirateke, zikloaren amaiera eta osotasuna.

Guzti hau kamera motelaren bidez grabatu eta erakusten digu. Violak ikusiko ditugun lan guztietan kamera motela erabiltzen du, bere aburuz, xehetasunetan arreta handiagoa jartzeko. Bizitzen dugun sozietate garaikide honetan oso ohituta gaude irudi asko eta oso azkar ikustera, publizitate eta arintasunaren sozietate honen eraginez. Hori dela eta, bere lanak kamera motelean gauzatzen ditu.⁵⁸ Daisetsu Teitaro-ren ustetan, mundu teknologiko kaotiko baten baitan bizi gara eta honi aurre egiteko lasaitasuna eta armonia behar ditugu, hau lortzeko meditazioa ezinbestekoa da, gure burua kaos horretatik aldentzeko.⁵⁹ Bien artean nolabaiteko konexio bat dagoela nabari daiteke, mundu kaotikoaren nolabaiteko ihes egitearekin. Batak meditazioaren bidea eskaintzen digu, besteak, aldiz, artearena.

Garaian gauzatutako beste artelanetako bat *Lo daudenak* (*The Sleepers*, 1992) izan zen. Artelan hau Musée d'Art Contemporain de Montréal-entzat eginiko bideo instalazio bat izan zen, gerora Bill Violaren lan esanguratsuenetako bat bihurtuz. (2. irudia) Instalazioa zazpi ur bidoiez osatuta dago eta bidoi bakoitza urez beteta agertzen da, 200 litro ur baino gehiago erabiliz. Bidoiak



2.irudia. *Lo daudenak* (*The Sleepers*,1992).

⁵⁶ DESHIMARU, T.: *Preguntas a un maestro Zen*. Barcelona, Editorial Kairos, 2008, 28-29 orr.

⁵⁷ VILLALVA, op. cit., 458 orr.

⁵⁸ AA.BB., op. cit., 320-321 orr.

⁵⁹ VILLALVA, op. cit., 16 orr.

urez beteta egoteaz gain, monitore bat zuten eta monitore bakoitzean pertsona bat lotan agertzen zen, txuri-beltzean.⁶⁰

Bideo instalazio honekin Bill Violak zuzenean loak sortzen digun inkontzientziari erreferentzia egiten dio, berriro ere, uraren bitartez inkontzientzia honi aipamena egiten dio *Igarotzea (The Passing, 1991)* lanean egin zuen bezala. Lo egotean, buruak arrazoia eta logikatik ihes egiten du, gure burua inkontzientzia edo subkontzientziaren pean utziz, hau da, aske. Bai monitorean agertzen diren pertsonak baita buruaren egoera hau ere, hilda egotearekin guztiz lotuta daude. Monitoreetan agertzen diren pertsonak askotan hilda daudela dirudite baina berez, lo daude. Horrekin bat, lehen aipatu bezala burua hutsaren baitan uztearen egoera jaiio eta hiltzen garenean lortzen dugu, gure egoera naturala delako. Hala ere, lo gaudenean ere burua inkontziente eta aske dago eta ondorioz, konfunditu ahal ditugu.⁶¹ Egoera hau, meditazioak sortzen digun egoerarekin parekatzen da, ura bezala era aske batean jariatuz. Lehen esan bezala, ura bizitzaren jarioarekin eta lortu beharreko askatasunarekin parekatzen da, budismo Zen-aren elementu oso garrantzitsua izanez.⁶²

Sanbô Kyôdan maisuak mendebaldeko Jäger maisu Zen-ari irakatsi zion bezala, bizitza ura korrante batekin parekatzen da eta ur korrante hori aske eta inkontzienteki jariatzean itsasora heltzen da. Ur korrante hori bere ibilbidea jarraitu behar du jariatuz, inolako oztopo barik. Azkenean, ibilbide luze hori itsasora eramaten du, hau da, osotasunera eta askatasunera. Egoera hori guk lortu behar dugula uste da, gure burua ura bezala hutsean eta aske jariatu behar du, meditazioaren bidez noski.⁶³ Hori dela eta, bideo artelan honek aipatutako egoera guzti honi erreferentzia egin ahal dio. Alde batetik, gure bizitza ura bezala jariatzen utzi behar dugu. Eta bestetik, hori lortzeko egin behar duguna: meditazioaren bidez gure burua “lo” utzi, inkontziente, aske eta hutsik, inolako arrazoi edo logikari erreparatu gabe. Horrela, burua ura bezala aske egotean, guri osotasunean askatasunera eramango gaitu, itsasora edo argiztapenera, hain zuzen ere.

⁶⁰ HANHARDT, op. cit., 61-62 orr.

⁶¹ MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA: *Mas allá de la mirada* https://www.museoreinasofia.es/sites/default/files/exposiciones/folletos/1993008-fol_es-001-bill-viola.pdf (2019.4.30ean kontsultatua).

⁶² VILLALVA, op. cit., 458 orr.

⁶³ JÄGER, W.: *Sabiduría de Occidente y Oriente: visiones de una espiritualidad integral*. Bilbao, Desclée de brouwer, 2008, 17-19 orr.

Zerua eta Lurra (Heaven and Earth, 1992)

bideo instalazioa bi telebista pantaila edo monitoren osatuta dago. Monitoreak aurrez aurre kokatuta daude, bost zentimetrora zehazki eta egurrezko koloma baten tartean kokatzen dira, koloma sabaira eta lurrera helduz. Telebistek ez dute karkasarik, hau da, telebistek ez dute pantailaren atzean kokatzen zaien armazoi edo egiturarik. (3. irudia) Monitore hauetan bi irudi txuribeltzean proiektatzen dira, bakoitzean bat. Goyaldean adindun bat hiltzen agertzen da eta beheko monitorean, aldiz, ume baten jaiotza. Bi monitoreak aurrez aurre hain hurbil kokatuta daudenez, irudiak bata bestearen gainean proiektatzen edo erreflexatzen dira, irudiak gainjarriz.⁶⁴



3.irudia. *Zerua eta Lurra* (Heaven and Earth, 1992).

Era honetara, literalki jaiotza eta heriotza aurrez aurre jartzen dira, talka edo aurka eginez. Berriro ere, Violak bizitzaren hasiera eta amaiera adierazten dizkigu, oraingoan inoiz baino erlazio hurbilago batean. Honen bidez, jaiotza eta bizitza osotasunean edo ziklo baten antzera errepresentatzen ditu, jaiotza eta heriotza elkarren erreflexu bilakatuz, bata bestearen beharra edo isla izango balira bezala. Inoiz baino erlazio estuago bat sortzen du bi egoera hauen artean, bizitzaren hasiera eta amaiera elkartuz eta zirkuitu itxi bat osatuz.⁶⁵

Jaiotza eta heriotzaren arteko konfrontazio edo talka honen inguruan, Shunryu Suzuki maisu japoniarraren aburuz, jaiotzen garen momentutik nola hil behar garen irakasten digute, heriotzak berebiziko garrantzia hartzen du, beldurra ematera helduz. Bere esanetan, bizitzen garen bitartean ez dugu zertan gure heriotzaren orduan ezta momentu hau ekiditean pentsatu behar. Oraina bizi behar dugu, ezin zaiolako bizitzari uko egin heriotza eragozteko. Shunryu eta budistei adimena heriotzara zer-nolako egoeran heltzen den inporta zaie. Horretarako, esperantza eta beldurra alde batera utziz orainean zentratu behar garela dio, hau da, bizitzen dugun bizitza nola bizi. Azken hau

⁶⁴ ARTIUM: <http://catalogo.artium.org/dossieres/1/bill-viola/obra/sus-obras/heaven-and-earth> (2019.4.30ean kontsultatua).

⁶⁵ MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA: https://www.museoreinasofia.es/sites/default/files/exposiciones/folletos/1993008-fol_es-001-bill-viola.pdf (2019.4.30ean kontsultatua).

behar bezala gauzatzeko, Suzuki-k *Dharma* edo lege erlijiosoari leial izatea eta behar bezala praktikatzea proposatzen du. Kasu honetan, Budismo Zen-a behar bezala praktikatzea, konkretuki, orain arte aipatutako meditazioan datza eta horrekin bat, buru hustua edo hutsunearen bidea jarraitzean, askatasuna eta argiztapena lortzeko.⁶⁶

Bi monitoreen artean 5 zentimetroko hutsune bat agertzen zaigu, hutsune hori jaiotza eta bizitzaren artean dagoen ezinbesteko gauza izanez. Budismo Zen-ak aditzera ematen digun bezala, hutsunea berebiziko garrantzia hartzen du, ezinbestekoa bilakatuz. Aurretik aipatu bezala, hutsunea argiztapenerako bidea izango litzateke. Hau da, hutsunea beharrezkoa da, burua edo adimena hutsaren pean uztea arrazoaia, logika eta kontzientziaren aldentzea izango litzateke, askatasunerako bidea hartuz. Burua eta ondorioz gorputzaren askatasunaren bitartez, salbazioa edo argiztapena helduko ziren. Kontuan hartu behar da hutsune edo inkontzientzia hau jaio eta hiltzerakoan ditugula, hau da, hasieran eta amaieran, baina tartean, hau da, bizitzan, meditazioaren bidez landu behar dugun zerbait da aske izatera heltzeko.⁶⁷

Hamarkada honen baitan azaldutako azkenengo lana *Estazioak* (*Stations*, 1994) izango litzateke. *Estazioak* (4. irudia) bost pantailaz osatutako bideo instalazioa da eta pantaila horien aurrean edo azpian, lurrean hain zuzen ere, granitozko beste bost plaka beltz kokatuta daude. Oraingoan, xehetasun ezberdin batzuk ageri dira aurreko bideo artelanetan aurkitzen ez direnak. Alde batetik, irudien proiektzioak kolorezkoak dira eta ez txuri-beltzean. Bestalde, soinua dago, hori bai, ura eta ur azpiko marmarrak soilik entzuten dira.



4.irudia. *Estazioak* (*Stations*, 1994).

Instalazio honetan lehenengotan ura ikusten da, kamera edo gu, ur azpian egongo bagina bezala. Bideoa aurrera egiten duen heinean pertsonak ikusten dira uretan murgiltzen, denak buruz behera. Horrekin bat, bideoan ikusten da nola gorputzak uretan mugitu eta bihurtzen diren, gorputzaren mugimendu eta portaeretan zentratuz. Pantailaren argia zuzenean lurreko granito beltzean islatzen da, gorputz murgilduen irudiak granito beltzean irudikatuz. Azken honek, gorpuak ur edo likido beltzean

⁶⁶ SUZUKI, S.: *Mente Zen mente de principiante: conversaciones informales sobre meditación y practica Zen*. Madrid, Editorial Gaia, 2015, 47-48 orr.

⁶⁷ HANHARDT, op. cit., 65-66 orr.

murgilduta daudenaren sentsazioa sortzen du. Esan beharra dago aurreko lanekin alderatuta, lan honetan artista gorputzen espresioetan gehiago zentratu dela.⁶⁸ Guzti hau borobiltzeko, aipatu kamera motelaren bidez grabatuta dagoela, berriro ere Daisetsu Teitaro eta bere mundu teknologiko kaotikotik ihes egin nahian oinarrituta. *Igarotzea* lanean azaldu bezala, kamera motela Teitaro-ren ihesaldi horri erreferentzia egiten dion mekanismoa da.⁶⁹

Berriro ere, aurreko lanetan azaldutako guztia kontuan hartuta, ikus dezakegu nola lan honek Budismo Zen-a eta inkontzientzia nahiz askatasunaren ideiak berriro lantzen dituen, beste behin uraren metafora erabiliz. Lan honek, aldiz, ez dio soilik burua edo adimenari erreparatzen, gorputzari ere bai. Bideoan ikus dezakegu nola gorpuek uretara salto egiten duten, ura hutsunearen metaforara izanez.

Behin uretara sartuta, gorputzak aske uzten dira, gorpuak uraren nahi edo mugimenduen pean utziz. Azken hau askatasun edo argiztapenera heltzeko jarraitu beharreko bidea edo lortu beharreko egoera izango litzateke. Hau da, behin burua hutsunera salto egiterakoan gorputza ere hutsune horren baitan sartzen da, gizabanakoa osotasunean (burua eta gorputza) hutsunean, inkontzientzian eta askatasunean utziz, uraren pare. Budismo Zen-aren aburuz, egoera hau meditazioaren bidez lortzen da. Bizitzan egoera honetara heltzea lortuz gero, jaiotza, bizitza eta heriotza lotuko ziren, zirkuitu zirkular baten antzera.⁷⁰ Ondorioz, lan hau hutsune edo askatasunerako murgilketa literala izango zen, egoera honi erreferentzia zuzena eginez.

Bill Violak eta Budismo Zen-ak jaiotza eta heriotza elkartzen dituzte, bizitzaren zikloa delako. Zirkuitu itxi eta borobil bat izatearen ondorioz, pertsona bat hil eta beste bat jaioko da, etengabeko zirkuitu etenezinean egonez.⁷¹ Esan beharra dago, Zen-a mendebaldean guztiz finkatu zenean kristautasunaren ideia askorekin nahastu zela. Pentsamenduen nahasketa honen kutsua atal honetan sartzen ez diren artelan askotan nabarmendu daiteke, igokundea edo zeruratzea, bizitzaren osteko bizitza edo errenkarnazioa bezalako elementuen erabileran, esaterako.⁷²

⁶⁸ THE MUSEUM OF MODERN ART - MOMA: <https://www.moma.org/collection/works/81737> (2019.4.30ean kontsultatua).

⁶⁹ VILLALVA, op. cit., 16 orr.

⁷⁰ Ibid., 466-467 orr.

⁷¹ SUZUKI, D.T.: *Ensayos sobre Budismo Zen*. Bueno Aires, Editorial Kier, 1995, 72 orr.

⁷² VILLALVA, op. cit., 24-26 orr.

Ondorioak

Argi geratu da Bill Violaren ibilbide artistiko nahiz pertsonalean zehar budismo Zen-ak berebiziko garrantzia izan duela. Izan ere, jaiotza, bizitza eta heriotza gure egunerokotasunean ematen diren ekintzak dira. Etengabe munduko leku ezberdinetan pertsonak jaio, bizi eta hiltzen dira, ziklo etenezina izanez. Hala ere, gure mendebaldeko sozietatean 3 kontzeptu hauek ezberdin hauteman edo ulertzen dira.

Gure sozietatean heriotzaren inguruan batez ere gutxi hitz egiten da honen inguruan, orokorrean gai tabua delako. Mendebaldeko sozietatean eta batez ere kristautasunaren eraginez, heriotzaren inguruan beldurra hedatu da. Heriotzean pentsatzea eta honi buruz hitz egitea gaizki ikusita dago, azken honengatik heriotza eman edo inbokatuko delaren beldur garelako.

Filosofia budistak, aldiz, bizitza eta heriotzaren inguruan beste ikuspuntu bat eskaintzen du, mendebaldeko negatibitate eta beldurretatik aldentuta. Budistek prozesu hauek ziklo baten antzera ulertzen dituzte, heriotzak jaiotza dakarrelako eta alderantziz, etengabeko errenkarnazio etenezin baten parte izanez. Honen ondorioz, budistek ez dute heriotza prozesu negatibo edo tristetzat hartzen, bizitzen jarraitzeko beharrezkoa den prozesua baizik.

Gai hauetaz gain, Bill Violak beste gai motak jorratzen ditu, modu ezberdin askotan. Esan daiteke Bill Viola osotasunean erabateko artista dela, bideoa, irudia, artearen historia, poesia, literatura, erlijioa, musika eta beste hainbat esparru bere lanetan batzen dituelako. Honekin, ondorioztatu daiteke diziplina anitz menperatzen dituen artista dela, hau bere lanetan islatuz. Bestalde, Bill Violak lantzen eta transmititzen dituen kontzeptuak sakonak eta irudikatzeko konplexuak izan arren, era berezi eta fin batean irudikatzen ditu, modu interesgarri eta originalean gorpuztuz.

Borobiltzeko eta lanean aurretik aipatu bezala, teknologia berriek hiru ezaugarri nagusi kontuan hartzen dituzte, ematen den garaikidetasun eta aldaketen garaiaren hiru frogak izanez. Esan bezala, alde batetik artistaren profila aldatzen da, Bill Violaren kasuan frogatu da profil edo diziplina anitzeko artista dela. Bestetik, euskarriari dagokionean bideoa eta monitoreak ditugu. Aurretik esan bezala, ordura arte eman ez ziren euskarri ezberdinek behar berriak eskatzen dituzte. Azkenik, ikuslearen begiratzeko modua aldatzen da. Bideo lanek ordura arte exijitu ez zen ikusteko modu

ezberdin bat eskatzen dute, modu, denbora eta adimen ezberdin bat. Azaleratutako froga eta egiaztatze guzti hauengatik, uste dut Bill Viola arte garaikidearen eta bereziki bideo artearen erreferente nagusietako bat dela.

Bibliografía

- AA.BB.: *El museo del Prado y el arte contemporáneo: la influencia de los grandes maestros del pasado en el arte de vanguardia*. Madrid, Galaxia Gutenberg, 2007.
- BAIGORRI, L.: *Video digital de creació*. Barcelona, Universitat Oberta de Catalunya, 2005.
- CASTRO, F.: “Las pasiones de Bill Viola”, *Descubrir el arte*, 72 zbk., 2005, 60-67.orr.
- DESHIMARU, T.: *Preguntas a un maestro Zen*. Barcelona, Editorial Kairos, 2008.
- DUCHEMENT, J.: *La expansión del discurso audiovisual en la instalación artística: el sonido off como significante sonoro*. Granada, Editorial de la universidad de Granada, 2014.
- FOSTER, H.: “Introducción al postmodernismo”, in FOSTER, H. (ed.): *La Posmodernidad*, Barcelona, Editorial Kairós, 1985.
- GUASCH, A.M.: *El Arte Ultimo del Siglo XX. Del postminimalismo a lo multicultural*. Madrid, Alianza Editorial, 2000.
- HANHARDT, J.G.: *Bill Viola: Retrospectiva*. Bilbao, Guggenheim Bilbao eta La Fábrica, 2017.
- JÄGER, W.: *Sabiduría de Occidente y Oriente: visiones de una espiritualidad integral*. Bilbao, Desclée de brouwer, 2008.
- LONDON, B.: HOBBERMAN, J., KUSPIT, D.: *Bill Viola*. New York, The Museum of Modern Art, 1988.

- LYOTARD, J.F.: *La Condición Posmoderna*. Madrid, Ediciones Cátedra, 2000.
- MARTÍNEZ, J.: *Videoarte expandido, espacio de confluencia entre la cinematografía y la escultura*. Barcelona, Universitat de Barcelona, 2014.
- MÚGICA, B.: *La presencia del arte japonés en Occidente: El arte Zen en la obra de Prado de Fata*. CYXAC Masterraren Azken Lana, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2018.
- SARRIUGARTE, I.: “Conexiones entre el videoclip y el videoarte”, in PEINÓ, J. et al. (ed.): *Otoimatge-MusicVideoArte*, Valencia, Editorial de la Universidad Politécnica de Valencia, 2008.
- SHIZUTERU, U.: *Zen y Filosofía*. Barcelona, Herder, 2005.
- SUZUKI, D.T.: *Ensayos sobre Budismo Zen*. Bueno Aires, Editorial Kier, 1995.
- SUZUKI, D.T.: *Introducción al Budismo Zen*. Bueno Aires, Editorial Kier, 2006.
- SUZUKI, S.: *Mente Zen mente de principiante: conversaciones informales sobre meditación y practica Zen*. Madrid, Editorial Gaia, 2015.
- VARA, C.: << A cada momento un mundo nace y muere >>: *elementos de la temporalidad en las video instalaciones de Bill Viola, con una coda de neurociencias*. Barcelona, Universitat Pompeu Fabra, 2016.
- VILLALVA, F.: *Budismo Zen: Repercusiones estéticas en Oriente y Occidente*. Madrid, Universidad Complutense de Madrid, 2013.
- VIRILIO, P.: *El ciber mundo, la política de lo peor*. Madrid, Ediciones Cátedra, 1997.
- YASSINE, E.: *Breve historia del Budismo*. Madrid, Ediciones Nowtilus, 2014.

Webgrafia

- ARTIUM-aren web orria: <http://www.artium.org/es/>
- BILL VIOLAREN web orria <https://www.billviola.com>
- ELECTRONIC ARTS INTERMIX gunearen web orria: <https://www.eai.org/webpages/30>
- FOUNDATION CARTIER POUR L'ARTE CONTEMPORAIN gunearen web orria: <https://www.fondationcartier.com/en/exhibitions/bill-viola>
- GUGGENHEIM-BILBAO MUSEOAREN web orria: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/>
- HERNÁNDEZ, J. “El universo poético de Bill Viola”. *ARS magazine*, 2017ko ekainean: <https://arsmagazine.com/el-universo-poetico-de-bill-viola/>
- MASSARA, G.: “Arte y Nuevas Tecnologías, lo experimental en el bioarte”, *Revista: Centro de estudios y diseño en comunicación*, Cuaderno 45, 27-37 orr., Universidad de Palermo, 2013. <http://www.scielo.org.ar/pdf/ccedce/n45/n45a03.pdf>
- MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA gunearen web orria: <https://www.museoreinasofia.es/>
- MUSEO NACIONAL CENTRO DE ARTE REINA SOFÍA: “Mas allá de la mirada”, https://www.museoreinasofia.es/sites/default/files/exposiciones/folletos/1993008-fol_es-001-bill-viola.pdf

- PIRELA, A.: “La estética de la desaparición y la ciudad en Paul Virilio”, *Utopía y praxis*, 15 zbk., 100-107 orr., Universidad de Zulia, 2001, <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2731355>

- PULIDO, N.: “Bill Viola: de lo espiritual en el arte”. *ABC Cultural*, 2017: https://www.abc.es/cultura/arte/abci-bill-viola-espiritual-arte-201706300125_noticia.html

- REVUELTA, L.: “Bill Viola: «Los hombres no pueden controlar la Naturaleza»”. *ABC Cultural*, 2017: https://www.abc.es/cultura/cultural/abci-bill-viola-hombres-no-pueden-controlar-naturaleza-201707020023_noticia.html

- ST. PAUL’S CATHEDRAL gunearen web orria: <http://billviolaatstpauls.com/martyrs>

- THE GUGGENHEIM MUSEUMS AND FOUNDATION gunearen web orria: <https://www.guggenheim.org/>

- THE MUSEUM OF MODERN ART - MOMA gunearen web orria: <https://www.moma.org/>